## INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

### 6003

AGINDUA, 2008ko urriaren 6koa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena, laginak hartu eta analisiak gauzatzeari dagozkion tarifak eguneratzen dituena, Euskal Autonomia Erikdegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuarekin bat.

Irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomi Erkidegoan erabilitako olioen kudeaketa arautzeari ekin zitzaion, honela, aipatu olioen berezko ezaugarrien araberako destinorik egokiena ematearren gauzatzen diren jarduketei buruzko araubide juridikoa ezarri zen.

Dekretu horren 20. eta 21. artikuluetan xedatutakoarekin bat, ingurumen organoari dagokio Euskal Autonomi Erkidegoan, jatorriz nahiz destinoz, erabilitako olioen ezaugarri fisiko-kimikoak egiaztatzea, ondoren, kudeatzaile baimenduak emango dien tratamendua egokia dela egiaztatzeari begira; laginak hartu eta beharrezko analisiak egingo dira helburu horrekin.

Era berean, 21 artikuluko 2 eta 3 idaztietan, laginak hartzea nahiz analisiak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari atxikitako, IHOBE Ingurumen Kudeaketarako Baltzu Publikoak gauzatuko ditu, aipatu Dekretuko eranskinean jasotako eduki teknikoari estu lotuta.

Azkenik, xedapen gehigarrian, analisiak egin nahiz laginak hartzeagatik tarifa bat ezarriko da. Horren zenbatekoa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak zehaztu eta eguneratuko du.

Hala, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko martxoaren 1eko aginduz, analisiak egin nahiz laginak hartzeagatik aipatutako tarifen zenbatekoa eguneratu zen, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan ezarritakoarekin bat.

Aipatutako tarifak egiten diren analisien benetako kostuari egokitzeko agindu honen bitartez eguneratzen dira.

Ondorioz, irailaren 29ko 259/1998 Dekretua ezarritakoa aplikatuz eta Gobernu Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan ematn zaizkidan eskumenen arabera

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

### 6003

ORDEN de 6 de octubre de 2008, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se actualiza el importe de las tarifas relativas a la ejecución de las funciones de toma de muestras y realización de analítica, de conformidad con lo establecido en el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, se procedió a regular la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, estableciéndose el régimen jurídico aplicable al conjunto de actuaciones tendentes a dar a dicho aceite el destino final más adecuado de acuerdo con sus características específicas.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 20 y 21 del mencionado Decreto corresponde al órgano ambiental la comprobación de las características físicoquímicas del aceite usado con origen o destino en la Comunidad Autónoma del País Vasco en orden a verificar su adecuación al tratamiento posterior por gestor autorizado, procediendo a tal fin a la toma de muestras y realización de la analítica requerida.

Asimismo, y a tenor de lo dispuesto en el artículo 21 en sus apartados 2 y 3, la toma de muestras y la realización de la analítica se llevará a cabo por la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, S.A., adscrita al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, ajustándose al contenido técnico que se recoge en el anexo al citado Decreto.

Finalmente su Disposición Adicional establece que la toma de muestras y la realización de la analítica quedará sometida al cobro de una tarifa cuyo importe se determinará y actualizará por la Consejera del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

En este sentido por Orden de 1 de marzo de 2007 de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, se actualizó el importe de las tarifas relativas a la ejecución de las funciones de toma de muestras y realización de analítica, de conformidad con lo establecido en el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre.

Considerando la necesidad de adecuar progresivamente el importe de las referidas tarifas al coste real de las analíticas realizadas se procede por la presente Orden a su actualización.

En su virtud, en aplicación de lo dispuesto en el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, y de conformidad con las competencias que me atribuye el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno,

XEDATU DUT:

***Lehenengoa.–*** Zamudioko udal barrutiko Torrelarragoiti industrialdean, z/g, kokatuta dagoen IHOBE S.A. Baltzu Publikoak, irailaren 29ko 259/1998ko Dekretuaren eranskinari jarraiki gauzatzen dituen, erabilitako olioei eman beharreko azken kudeaketaren araberako laginak hartzeari eta analisiak egiteari, ondoko tarifak ezarriko zaizkie:

a) Biskositate zinematikoa zehaztea: 11,03 euro (ASTM-D445 Arauan ezarri metodoaren arabera gauzatuko da.).

b) Sugar eta errekuntza puntuak zehaztea: 10,38 euro (ASTM-D92 edo ASTM-D93 Arauan ezarri metodoaren arabera gauzatuko da.).

c) Ur edukia determinatzea: 10,75 euro (ASTM-D95 Arauan ezarri metodoaren arabera gauzatuko da, edo Karl Fischer kulombimetria/bolumetria bidez).

d) Kloro total edukia zehaztea: 7,51 euro (EPA-9076 edo ASTM-D5384 Arauan ezarri metodoaren arabera gauzatuko da).

e) Policlorobifenilo (PCB) edukia zehaztea: 38,54 euro (EPA-600 Arauan ezarri metodoaren arabera gauzatuko da).

f) Dentsitatea zehaztea: 0,90 euro (ASTM-D1298 Arauan edo oszilazio kapilar bidezko dentsimetrian ezarri metodoaren arabera gauzatuko da).

g) Metal edukia zehaztea (Cadmioa izan ezik): 16,81 euro (ASTM-D5185 Arauan ezarri metodoaren arabera gauzatuko da).

h) Sufre edukia zehaztea: 2,77 euro (ASTM-D5185 Arauan ezarri metodoaren arabera gauzatuko da).

i) Kadmio edukia zehaztea: 2,77 euro (ICP bidezko Emisio Atomiko espektroskopia erabiliz gauzatuko da).

***Bigarrena.–*** Aurreko artikuluan jasotako tarifek barne hartzen dituzte dagokion zerbitzurako beharrezkoak diren kostu guztiak, ezargarriak diren tasa eta zergak izan ezik.

***Hirugarrena.–*** Tarifak aldatu edota eguneratu ahal izango dira.

***Laugarrena.–*** Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuari hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Prozedura Administratibo Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta ondorengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, edo, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango, da bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu

DISPONGO:

***Primero.–*** La ejecución de las funciones relativas a la toma de muestras y realización de analítica requerida en función de la gestión final a otorgar al aceite usado, realizadas con sujeción al anexo del Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por la Sociedad Pública IHOBE, S.A. en sus instalaciones del Polígono Torrelarragoiti, s/n del término municipal de Zamudio, quedan sometidas al cobro de las siguientes tarifas:

a) Determinación de la viscosidad cinemática: 11,03 euros (se realizará de acuerdo con el método establecido en la Norma ASTM-D445).

b) Determinación de los puntos de inflamación y combustión: 10,38 euros (se realizará de acuerdo con el método establecido en la Norma ASTM-D92 o ASTM-D93).

c) Determinación del contenido en agua: 10,75 euros (se realizará de acuerdo con el método establecido en la Norma ASTM-D95, o culombimetría/volumetría Karl Fischer).

d) Determinación del contenido en cloro total: 7,51 euros (se realizará de acuerdo con el método establecido en la Norma EPA-9076 o ASTM-D5384).

e) Determinación del contenido en policlorobifenilos (PCBs): 38,54 euros (se realizará de acuerdo con el método establecido en la Norma EPA-600).

f) Determinación de la densidad: 0,90 euros (se realizará de acuerdo con el método establecido en la Norma ASTM-D1298 o densimetría por oscilación capilar).

g) Determinación del contenido en metales (excepto el Cadmio): 16,81 euros (se realizará de acuerdo con el método establecido en la Norma ASTM-D5185).

h) Determinación del contenido en azufre: 2,77 euros (se realizará de acuerdo con el método establecido en la Norma ASTM-D5185).

i) Determinación del contenido en cadmio: 2,77 euros (se realizará mediante la técnica de espectroscopia de Emisión Atómica por ICP).

***Segundo.–*** Las tarifas comprendidas en el artículo anterior incluyen todos los costes necesarios para la realización del Servicio de que se trate, salvo las tasas e impuestos aplicables.

***Tercero.–*** Las tarifas estarán sujetas a modificación o actualización.

***Cuarto.–*** Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio en el plazo de un mes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 116 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o bien recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su

eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako agindu honek Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko martxoaren 1eko Agindua indargabetzen du; hartan, analisiak egin eta laginak hartzeari zegozkien tarifak eguneratu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoan, erabilitako olioen kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 6a.

Ingurumen eta
Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

La presente Orden deroga la Orden de 1 de marzo de 2007, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se actualizó el importe de las tarifas relativas a la ejecución de las funciones de toma de muestras y realización de analítica, de conformidad con lo establecido en el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 2008.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.